

## OLLUAK MOSKORTUTA

Olluak zutelarik  
 naikoa janari,  
 arto-ale, talo ta  
 iriña ugari,  
 utzi zuten jateko  
 gozo eder ura,  
 ta joari ziran gizon bat  
 zegoan ingurura;  
 nu ari zan otordu  
 legia egiten  
 ardotan ogi puskak  
 busti eta jaten,  
 ollo pilla ain bertan  
 onek ikusita  
 ogi puskak botatzen  
 zituben bustita,  
 abek oso presaka  
 zituzten achitzen,  
 eta ardodun ogi  
 guztiyak tragatzen,  
 bañan ainbeste puska  
 erariz bustiyak

chit moskortu zituben  
 egazti guztiyak.  
 Gero okasiyuan  
 ziran denak asi,  
 elkarri mokazuak  
 eatzirik bizi;  
 bazan negar, balantza,  
 ta bulla batian,  
 errenditu ta denak  
 gelditu artian;  
 sei egunian ondo  
 sendatu etziran.  
 . . . . .  
 . . . . .  
 Gizon batzubek ere  
 ollo ayen gisa,  
 uzten dute echeko  
 ederra chit aisa;  
 eta besteren charra  
 janaz badabiltza  
 geyenian etorko  
 baizayote gaitza.

JOSÉ ARTOLA.